

Erref.- FMR/Legelari aholkularia

GAIA.- ERABAKI-PROPOSAMENA, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN (GUFÉ) 2022. URTERAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA PARTZIALKI ETETEKO, GIZARTE HEZITZAILEAREN SEI PLAZARI DAGOKIENEZ, ETA PLAZAK ETA LANPOSTUAK BERRANTOLATZEKO.

Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2022ko abenduaren 19ko bileran (5/2022 zenbakiko akta), Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea xedatu zuen, eranskinean ezarritako baldintzetan. Baldintza horiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, 248. zenbakian, 2022ko abenduaren 30ean. Eskaintza hartan gizarte-hezitzailearen sei plaza zeuden.

Aldi berean, eta aurreko enplegu-eskaintzetan oinarrituta, gizarte-hezitzailearen 24 plaza betetzeko lehiaketa-oposiziorako deialdia egin da; ikus 2021eko azaroaren 22ko BAO, 224. zk. Hala, Epaimahaiak hautagaien zerrenda lan-kontratudun langile gisa kontratatzeko proposamena egin du, hori guztia oinarrietan xedatutakoaren arabera.

Bada, aurrekoa gorabehera, egia da Bilboko Lan-arloko Epaitegien zenbait epaik finkotzat jo dutela, duela gutxi eta lehen auzialdian, lanpostu jakin batzuk betetzen ari zirenen lan-lotura, eta lanpostu horien artean daudela orain esleitu nahi diren duela gutxiko deialdietako batzuk.

Gauzak horrela, justizia materialaren mesedetan, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaiei zor zaizkien eskubide subjektibo partikularrak babestu nahi dira. Hori guztia egin behar da epai judizial horien ondorioz finkotasun-deklarazioa lortu dutenen eskubideari kalterik egin gabe, harik eta bidezko igurikimenaren ontasuna jurisdikzio-bidean ebatzi arte.

Azaldutakoagatik, eta hain interes desberdinak modu arrazoizkoan bateratzeko asmoz, zentzuzkoa eta zuhurra da goian aipatutako 2022ko enplegu-eskaintzaren deialdia bertan behera uztea, xede dituen gizarte-hezitzailearen sei lanpostuei dagokienez, esleitu beharreko plazei behar bezala eusteko moduan.

Jarraian, beharrezkoa da plazak eta lanpostuak erlazionatzea, pertsona batzuen eskubideak eta beste batzuen itxaropenak behar bezala uztartzeko. Horrela, eskaintako plaza guztiak bere horretan mantentzen dira, eta, orain, beste lanpostu berezitu batzuekin lotzen dira. Lanpostu horiek, gainera, hizkuntza-eskakizunaren eskakizunen arabera bereizten dira, kasu bakoitzean, hasiera batean eskaintako plazak eta lanpostuak eskuratzeko baldintzak betetzeko.

Azkenik, Erakundearen ordezkariak duten sindikatuek proposamen honen irismenaren berri izan dute alde zuzenetik, eta ados daudela adierazi dute.

Gai honetaz arduratzeko eskumena GUFÉko Gobernu Batzordeari dagokio, maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera (4/2001 Foru Araua, Erakunde hori arautzen duten Estatutuak aldatzen dituen).



Horregatik guztiagatik, hau sinatzen duenak Gobernu Batzordeari aurkezten dio honako

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa.- Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFE) 2022rako Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion gizarte-hezitzaile izateko sei plazaren eskaintza etetea. Argitara bedi; eta hori guztia, lanpostu horiek bitarteko gisa betetzen dituzten langileek lehen auzialdian lortutako finkotasun-deklarazioen aurka jarritako jurisdikzio-errekurtsoak bideratu eta ebatzi bitartean.

Bigarrena.- Plazak eta lanpostuak berrantolatzea, erantsitako dokumentuan jasotakoaren arabera.

Bilbon, 2023ko otsailaren 6an.

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA

Sin.: David Latxaga Ugarteandia